



Victor Hugo: San Samson edo arrantzalearen emaztea ekaitzari begira. MVH © PMVP

1836

Mihise hau 1836. urteko saloian egon zen. Guerneseyra eraman zen. 1860. urtean, Victor Hugok lauko bat eskeintzen dio:

“Atearen eskubian, nire aitaren bistan, luzeran eta urrezko marko batean margotua naiz. Nire ukabil estutuen artean Victor nire semea hartzen dut, eta zera datorkit burura: estilo oneko erretratua izango litzateke, nire semeak nire jaurigaia ez balirudi”.



1836. Auguste de Chatillon. Victor Hugo eta bere semea François Victor. MVH © AKG Paris.

«Oceano Nox», Saint-Valery-Sur-Somme, Errainuak eta Gerizak, 42.

Uste denaren aurka, Hugok ez zituen 1837an pasa zuen Saint Valery Sur-Somme herria eta 1836ko uztailaren 16an bere bizian lehen aldiz ekaitza ikusi zuen Saint Valery en Caux herria nahastu.

Lehenago eskutitz batean deskribatu zuen eszena bere gogoz mugitzea idazlearen eskubide preskribaezinetako bat da. Egun batzuk lehenago, Victor Hugok itsasoan galdutako senarrei oihuka erregutzen zieten emakume txiroak ikusi zituen Notre Dame de la Délivrande-n. Hauetaz ere hitzegiten du eskutitzen batean.

“O, zenbat marinela, zenbat kapitain,
Urruneko itsasketetara abiaturik,
Suntsitu diren horizonte hits horretan!
Zenbat diren galdu, patu gogor eta iluna!
Hondorik gabeko itsasoan, ilargirik gabeko gauean,
Ozeano itsuaren azpian betirako lekutuak!
Zenbat patroililik beren eskifaiarekin!
Beren bizitzaren urakanak orri guztiak hartu ditu
Eta dena putz batean sakabanatu uhinetan!
Inork ez du jakinen murgiltze honen berri.
Harrapakin bana daramate uhinek pasatzean;
Batek txanela eraman du, besteak marinela!
Inork ez daki zuen berri, burugaldu gaixoak!
Zabaldegi laiotzetan zoazte firrilka,
Bekoki hilek talka egiten dutela traba ezezagunetan.
O, zenbat guraso zahar, amets bakarra zutenak,
Hil diren itsasertzean egunero aiduru zitutzela
Itzuli ez direnak!

Zuetaz hitz egiten da noizean behin gaubeiletan.
Zirkulu alaietan, aingura herdoilduetan jarririk,
Ilunpeek estalitako zuen izenak ekartzen dituzte
Algaretara, erretrauetara, kondairetara,
Zuen maitale izan behar luketenei ebatsitako potetara,
Alga berdeetan etzanda lo egiten duzuelarik!
Galdea: —Non ote dira? Uharteren batean errege agian?
Bazter emankorrako batek kendu ote dizkigu?
Gero zuen oroitzapena bera ere ehortziko dute.
Gorputza uretan da galdu, izena oroimenean.
Denborak, itzal orori itzal itzelago bat erantsiz,
Ozeano goibelean jaurtitzen du oroimen goibela.
Laster desagertuko da zuen itzala guztien begietarik.
Ez ote daukate nork bere txalupa, nork bere gurdia?
Kopeta zuriko alargunek bakarrik, zuen aiduru akituak,
Hartzen zaituztete oraino ahotan
Enbata garaile den gauetan, errautsa harrotuz
Sukaldean eta bihotzean!

Eta hilobiak noizbait betazala itxi duelarik,
Ezerk ez daki zuen izenik, ezta harri apal batek ere
Oihartzunak erantzuten digun hilerri meharrean,
Ezta udazkenez hostagabetzen den sahasak,
Ezta zubi zahar baten ukondoan eskaleak
Kantatzen duen abesti sotil eta aspergarriak ere!
Non ote dira, gau ilunean itzalpetu marinela?
O, uhinok, zuek badakizuela istorio lazgarririk!
Amak beldurrez belaunikotu uhin sakonok!
Mareak goratzean kontaktzen dizkiguzue,
Eta horregatik egiten duzue garrasi hain garratz
Ilunabarrean guregana etortzen zaretenean!

Oceano Nox